



Esp. kodea: 2024SSEC0005

Gaia: 2024 ARAUDI PLANA
Hasiera eguna: 2024/01/10

ZIURTAGIRIA

NIK, Ana Belen Hidalgo Corral andrea, ARRASATEKO UDAL AGURGARRIKO IDAZKARIAK,

ZIURTATZEN DUT:

Udaleko Osoko Bilkurak, 2024ko otsailaren 6an egindako bilkuran, besteak beste, erabaki hau hartu zuen:

“2024KO ARAUDI PLANA ONARTZEKO PROPOSAMENA (2024SSEC0005).

Udalbatzarra osatzen duten legezko 21 zinegotzietatik 19 bilkuran daudela, Udaleko Osoko Bilkurak, aho batez, Pertsonen batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“2016ko urriaren 2an sartu zen indarrean 39/2015 Legea. Horren 132. artikulua honakoa dio:

“132. artikulua. Arau-plangintza.

- Herri-administrazioek, urtero, araugintza-plan bat argitaratuko dute. Bertan, hurrengo urtean onesteko aurkeztuko diren lege- edo erregelamendu-ekimenak jasoko dira.
- Urteko Araugintza Plana onartu ondoren, dagokion Administrazio Publikoaren Gardentasunaren Atarian argitaratuko da.”

Hori horrela, sailekin kontsulta egin da, eta horiek jarraian zehazten diren ordenantza proposamenak egin dituzte 2024ko Araudi Planean sar daitezzen:

2024RAKO ARAUDI PLANA

PERTSONEN BATZORDEA:

“UDALEKO LANGILEEK TELELANAREN BIDEZ MODALITATE EZ PRESENTZIALEAN JARDUTEKO ARAUDIA

Irailaren 29ko 29/2020 Errege Lege Dekretuak, Administrazio Publikoetako telelanaren arloko eta Osasun Sistema Nazionalen COVID-19k eragindako osasun-krisiari aurre egiteko giza baliabideen arloko premiazko neurriei buruzkoak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina (aurrerantzean EPOELTB) aldatu du 47 art. bis bat gehituz. Oinarrizko

Kodea	H24/01750	Udala	Arrasate/Mondragón	
Data	2024/ots./07	CUDO	000.0055.AAA1A2NH.E.YdoM	
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1A2NHE.YdoM			
Dokumentu honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2024SSEC0005

Gaia: 2024 ARAUDI PLANA
Hasiera eguna: 2024/01/10

esparru arautzaile bat ezartzen da herri-administrazio guztientzat, eta kontuan hartzen da, halaber, Estatuak lan-arloko legeriaren gainean duen eskumena lan-kontratudun langileen kasuan.

Aipaturiko artikuluan jasotako asmo-adierazpenengatik, bai erregulazioaren laburtasunagatik (artikulu bakarra) ondorioztatu daiteke administrazio publikoek telelana arautzeko tresna arauemaile propioak garatu ahal izango dituztela beren erakunde publikoetan. Jakina, erregulazio-tarte zabal hori osatzeko, lehenik eta behin, Estatuko oinarrizko legeria garatzean autonomia-erkidegoetatik datozen arauak erabiliko dira. Beraz, araudi horren xedea da Arrasateko Udaleko langileentzat telelanaren bidez modalitate ez presentzialeko jarduteko aukera arautzea.

2023ko Araudi Planak jada jasotzen zuen aipatutako araudia egitea, eta urte horretan hasi zen egiten. Horretarako, Negoziazio Mahaiaren baitan telelana arautuko duen dokumentua lantzen ari da, eta gaur egun 4. bertsiora arte osatu da. Hala ere, lan hori ezin izan da amaitu 2023 urtea bukatu baino lehen, eta, beraz, 2024ko Arau Planean sartzea eskatzen da.

LAN POLTSAK KUDEATZEKO ARAUDIA (ALDAKETA)

Udalbatzarrak 2009ko abenduaren 3an onartu zuen behin betikoz Arrasateko Udalaren Lan Poltsak Kudeatzeko Araudia. Ikusita, uneko arau, antolaketa eta gizartearen dauden eskakizunetara egokitzeko beharra, eta aldi berean, Administrazioaren jarduna eraginkorragoa izaten bilatuz, araudi hori berrikusi egin zen, azken helburua betiere Administrazio publikoaren beharrak ahalik eta modu eraginkor eta efizientean aseak izan daitezela. Hori horrela, Udal Plenoak, 2023ko otsailaren 8an egindako bilkuran, Arrasateko Udaleko lan poltsak kudeatzeko araudi berria behin betiko onartu zuen.

Ordutik hona emandako denboran frogatu ahal izan da bere edukiaren arlo batzuk aldatu eta egokitzearen komenientzia, kudeaketa zailtasunak antzemanda. Horregatik, lan poltsak kudeatzeko araudia aldatzea proposatzen da, beti ere legearekin inolako kontraketarik izan gabe eta udal baliabideak era arrazionalen eta efizienten erabili ahal izateko.

UDALEKO ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOAREN ORDENANTZA

Administrazio publikoek administrazio elektronikoaren arloan bete behar dituzten betebeharrak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen bidez sartu ziren, interesdunen eskubide berriak betetzeko. 203/2021 Errege Dekretua, martxoaren 30eko, sektore publikoaren bitarteko elektronikoaren bidezko jardunaren eta funtzionamenduaren erregelamendua onartzen duenak, erregulazio hori osatu du. Horrela, administrazio elektronikoaren esparru juridikoa eratu da.

Arau horiek ezartzen dute izapidetze elektronikoa izan behar duela administrazioaren ohiko jarduerara eta ez prozedurak kudeatzeko modu berezi bat. Hau da, administrazioek beren artean eta beren organoekin, organismo publikoekin, haiei lotutako edo haien mendeko entitateekin dituzten

Kodea	H24/01750	Udala	Arrasate/Mondragón	
Data	2024/ots./07	CUDO	000.0055.AAA1A2NH.E.YdoM	
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1A2NHE.YdoM			
Dokumentu honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2024SSEC0005

Gaia: 2024 ARAUDI PLANA
Hasiera eguna: 2024/01/10

harremanak bitarteko elektronikoen bidez egingo direla, eta pertsona juridikoek, nortasunik gabeko erakundeek eta, kasu batzuetan, pertsona fisikoek administrazioarekin harreman elektronikoa izateko betebeharra ezartzen dute.

Herritarren ikuspegitik, zenbait eskubide aitortzen dira, eta garrantzitsuena Administrazioarekin harremanak izateko bidea aukeratzea da. Hori dela eta, Administrazioaren betebeharra da eskubide horiek gauzatzeko mekanismoak ezartzea; gainera, barne mailan, prozeduren izapidetze erabat elektronikoa bermatzeko bideak ezarri behar dira.

Administrazio elektronikoa ezartzea eboluzio prozesu bat da, eta administrazio publikoen funtzionamenduan txertatzea 4 mailako bilakaera eredu batean oinarrituta planteatzen da. Heldutasun maila handitzen doan heinean, sistemen konplexutasunak ere gora egiten du.

Kontuan izanda Arrasateko Udalaren administrazio elektronikoen heldutasun maila eta jada emanda dituen urratsak, zein 3. maila batean kokatu dezakegun: “3. maila_ Administrazio integratua: administrazio jardueraren zati bat automatizatua izan da. Eskaintzen diren zerbitzuak ez daude IKTen erabilpena egokitutako prozeduretan oinarrituta, baizik eta interakzio kanalen, back-office-ko informazio sistemen eta administrazio prozesuen arteko benetako integrazioaren emaitza dira. Hala ere, paperen manipulazioan oinarritutako administrazio lanaren fluxu batzuk daude.”

Horrela, beharrezkoa ikusten da Arrasateko Udaleko administrazio elektronikoen ordenantza bat onartzea, araudiak ezartzen duena betetzeko eta 4. Maila eskuratzeko helburuaz “Administrazio eraldatua: Administrazioa % 100 paperik gabe. Administrazio jardura erabat automatizatua da hasieratik amaierara, erakunde barruko edo erakunde arteko oztoporik eta menpekotasunik gabe. Barneko zein kanpoko erabiltzaileen ikuspegitik eraikitzen dira zerbitzuak. Erabiltzailearen gogobetetasuna maximizatzen bideratuak, kalitate eta gardentasun hobearen bidez, bai eta efizientzia areagotzearen bidez ere.”

HIRIGINTZA, TRANTSIZIO EKOLOGIKO ETA MUGIKORTASUN BATZORDEA:

BIDE PUBLIKOAK OSTALARITZAKO TERRAZEKIN OKUPATZEA ARAUTUKO DUEN ORDENANTZA

Ordenantza hori beharrezkotzat jotzen da ondoko arrazoietan oinarrituta, besteak beste:

- Bide publikoen erabileran talka sortzen da ostalaritza-erabileraren eta erabilera orokorraren artean.
- Ostalariei ematen zaizkien lizentziak Tokiko Gobernu Batzarraren irizpide baten oinarrian ematen dira, baina horiek ez dute arau-mailarik.
- Irizpideek beraiek iragankortasun-bokazioa zuten eta 2023an berrikustekoak ziren.

Kodea	H24/01750	Udala	Arrasate/Mondragón	
Data	2024/ots./07	CUDO	000.0055.AAA1A2NH.E.YdoM	
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1A2NHE.YdoM			
Dokumentu honen balioa egiaztatzeko, sartu zaituz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2024SSEC0005

Gaia: 2024 ARAUDI PLANA
Hasiera eguna: 2024/01/10

UDAL ONDAREAREN KATALOGOA ALDATZEA

Arrasateko Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak bere baitan jaso zuen, 2016an, udal Ondarearen Katalogoa. Aldiz, 2022ko ekainaren 28an, Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 81/2022 Dekretuaren bidez, Lezetxikiko Aztarnategi Arkeologikoa eta haren ingurua babes bereziko Kultura-ondasun izendatu ziren, Gune Arkeologikoaren kategoriarekin. Noski, HAPOren behin betiko onarpenaren ondoren etorri zenez izendapena, ez dago jasota HAPOrenkin batera onartu zen Udal Ondarearen Katalogoan.

Ikusirik babes maila gorena eman zitzaiola Lezetxikiko aztarnategiari eta haren inguruari, garrantzitsua ikusten du udalak izaera hori Udal Ondarearen Katalogoan modu egokian jasotzea. Horretarako, eta 2/2006 Lurzorua eta Hirigintzaren Legeak, bere 100.1 artikuluan dionari jarraiki, Katalogoen aldaketak Ordenantzen prozedura berbera jarraitu behar dutenez, 2024ko sailaren asmoen artean dago prozedura hori aurten burutzea.

AUZOAK ETA OZM BATZORDEA:

“ERREGELAMENDUA, BIDAIARIAK HERRI BARRUAN ETA HERRIZ KANPO KOTXEZ GARRAIATZEKO ZERBITZU PUBLIKOA ARAUTZEN DUENA

Ordenantza honen xedea automobiletan egiten den bidaiarien hiri-garraioko zerbitzuak arautzea da, kontagailu taximetroa dutenak eta Arrasateko Udalak emandako lizentzia dutenak.”

KIROL BATZORDEA:

“KIROL INSTALAZIOEN ARAUDIA BERRIKUSTEKO PROPOSAMENA:

Udal Plenoak 2015eko abenduaren 15ean egindako bilkuran erabaki zuen behin betiko onartzea Arrasateko Kirol instalazioen araudia eta 2016ko maiatzaren 26an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean behin betiko onarpena argitaratu zen.

Araudia indarrean sartu zenetik, funtzionamenduari dagokionez zenbait aldaketa eman dira (Uarkapeko instalazioak aldatu eta egokitu egin dira, erreserba moduak aldatu dira, ordainketa modu berriak dauzkagu...). Beraz, araudia egokitzea beharrezkoa ikusten da, besteak beste, ondorengo gaien inguruan:

- Uarkapeko instalazioetan gimnasioa jarri da.
- Sarbidea eta ordainketa moduak eguneratu behar dira (txartelarekin ordain daiteke gaur egun).
- Erreserba finkoak ez dira onartzen gaur egun.

Kodea	H24/01750	Udala	Arrasate/Mondragón	
Data	2024/ots./07	CUDO	000.0055.AAA1A2NH.E.YdoM	
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1A2NHE.YdoM			
Dokumentu honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2024SSEC0005

Gaia: 2024 ARAUDI PLANA
Hasiera eguna: 2024/01/10

- Boulderraren funtzionamendua egokitu behar da. (lehen sarbide propioa zeukan).
- Zehapen araubidea eguneratu.”

KULTURA BATZORDEA

ARRASATEKO UDAL LIBURUTEGIKO SARBIDEA ETA ERABILERA ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

Arrasateko Udal Liburutegia komunitate osoarentzako ezagutza eta kultura sortzeko eta zabaltzeko konpromisoa duen zerbitzu publikoa da.

Udalari dagokio eta ordenantzaren xedea da, liburutegiko instalazioen funtzionamendua arautzea, erabiltzeko baldintza ezin hobetan mantentzeko, erabilera-araudi honetatik eratorritako jarraibideen arabera.

Udala arduratuko da instalazioen funtzionamenduaz, hobekuntzaz, antolaketaz eta administrazioaz, liburutegiko zerbitzu teknikoaren bitartez.

OGASUNA BATZORDEA

“ORDENANTZA OROKORRA ZUZENBIDE PUBLIKOKO TRIBUTU ETA BESTE DIRU-SARRERA LOKALEN KUDEAKETA, KOBRANTZA ETA INSPEKZIOA ARAUTZEN DUENA

Ordenantza honen xedea da:

- Zuzenbide publikoko tributu eta beste diru-sarrera lokalen kudeaketa hobetzea eta erraztea ekar dezaketen prozedurazko aspektuak arautzea.
- Hainbat Ordenantza Fiskaletan komunak diren aspektuak erregulatzea, hartara horiek errepikatzea saihestuko baita.
- Udalak zehaztu edo garatu beharreko gaiak erregulatzea.
- Herritarrak informatzea bai indarrean dauden araez, bai tributu-pagatzaileen eskubideez eta bermeez, horien berri jakitea denen interesekoa gerta baitaiteke, tributuzko obligazioak behar bezala konplitze aldera.

Kodea	H24/01750	Udala	Arrasate/Mondragón	
Data	2024/ots./07	CUDO	000.0055.AAA1A2NH.E.YdoM	
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1A2NHE.YdoM			
Dokumentu honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2024SSEC0005

Gaia: 2024 ARAUDI PLANA
Hasiera eguna: 2024/01/10

ARRASATEKO UDALAREN KONTRATAZIOKO ADMINISTRAZIO PROZEDURAK
ARAUTZEN DITUEN UDAL ORDENANTZA (ALDAKETA)

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea onartu ondoren, Arrasateko Udalak aldatu egin behar du "Kontratazio prozedura administratiboak arautzen dituen udal ordenantza", 2011ko apirilaren 7ko osoko bilkuran onartua, araudi berrira egokitzeko.

Ordenantza honen xedea kontratazioari buruz indarrean dagoen araudi berri bat garatzea da, udalean kontratazio publikoa behar bezala erabiltzea dakarten prozedurak erabili ahal izateko, udal-jarduketek behar bezala funtziona dezaten, inolako lege-kontrakotasunik gabe eta udal-baliabideak modu arrazional eta eraginkorrean erabili ahal izateko.

ZORREN ORDAINKETA ATZERATU ETA ZATIKATZEARI BURUZKO
ORDENANTZA (ALDAKETA)

2017ko irailaren 13ko dataz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Arrasateko Udalaren Ordenantza, zorren ordainketa atzeratu eta zatikatzeari buruzkoa.

Ordenantzan hainbat aldaketa egiteko beharra atzeman da, batik bat, zorren ordainketa atzerako eta zatikatzeari buruzko irizpide berriak txertatzeko eta jadanik dauden irizpideak hobeto zehazteko."

Horiek horrela, Pertsonen Batzordeak Osoko Bilkurari proposatzen dio:

Lehenengoa: 2024rako Araudi Plana onartzea aurrez aipatutako testuarekin.

Bigarrena: Aipatutako plana udal web orrian erakusgai jartzea."

Eta hala jasota geratzeko eta ondorio egokiak sortzeko, ziurtagiri hau egin eta sinatzen dut, Alkateak agindu eta ontzat emanik, Arrasaten, 2024ko otsailaren 7an.

OE

Alkatea

Kodea	H24/01750	Udala	Arrasate/Mondragón	
Data	2024/ots./07	CUDO	000.0055.AAA1A2NH.E.YdoM	
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1A2NHE.YdoM			
Dokumentu honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				